

# MAIATZA MAYO

2018

## PROTOTIPOAK

**FORMA ARTISTIKO BERRIEN II. NAZIOARTEKO TOPAKETA**

**II ENCUENTRO INTERNACIONAL DE NUEVAS FORMAS ARTÍSTICAS**

**II INTERNATIONAL MEETING OF NEW ARTISTIC FORMS**

# Az

**Azkuna Zentroa**

**AlhóndigaBilbao**

URPEKO MUSIKA MÚSICA BAJO EL AGUA

# JULIETTE ARMANET

Kontzertua Concierto



Maiatzak 4, 21:00

Ahots bat, piano bat, testuak. Ekuazio erraz hori darabil Juliette Armanet-ek (bitxia, gaur den egunean), 'chanson française' delakoaren zaindaria. Pianoa du beti ondoan, 'bere piztia beltza', krimen eta dantzarako betiereko laguna. Gisa horretan, Juliette Armanet-ek urtebete eman du ia, bere erokeria sentimental gozoak aditzera ematen egunetik egunera ugaltzen doazen entzuleei.

Nostalgia eta umorearen artean balantzaka, gai da aura berezi bat sortzeko bere haragizko melodia sentiberen inguruan, kolore arrosatik beltzera dantzan. Koru zoragarriak, eta letren edertasuna eta fintasuna ikusita, bistan da chanson-eko figura handien alaba dela, zalantzarik gabe, Sheller eta Christophe-rena, Veronique Sanson eta Tellier-ena. 'Petite Amie' da Juliette-ren azken lanaren titulua, eta Marlon B-ek eta Antoine Pesle-k zuzendu dute batera. Hamabi pieza ditu, betiereko lagun duen pianoaren inguruan suharki moldatuak denak.

4 de mayo, 21:00h

Una voz, un piano, textos. Esa es la simple ecuación (y a la vez, rara en los tiempos que corren) de Juliette Armanet, la 'guardiana de la chanson française'. Siempre acompañado por su piano, su 'bestia negra', eterno compañero de crimen y danza, Juliette Armanet lleva casi un año confiando sus dulces locuras sentimentales a un público que crece día a día.

Entre la nostalgia y el humor, ella es capaz de crear un aura original alrededor de sus melodías carnales y sensibles que danzan entre el color rosa y el negro. Sus coros embriagadores y la belleza y finura de sus letras, la convierten en indiscutible hija de los grandes de la chanson, de Sheller a Christophe, o de Veronique Sanson a Tellier. El último trabajo de Juliette se titula 'Petite Amie', co-dirigido por Marlon B y Antoine Pesle, se trata de una obra compuesta por doce piezas febrilmente compuestas alrededor de su compañero eterno, el piano.



Kulturen Aterria (Igerilekuaren argi-zuloaren azpian)

8€ / 6€

Sarrerak: Infopuntua / [www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus)

Atrio de las Culturas (Bajo el lucernario de la piscina)

8€ / 6€

Entradas: Infopuntua / [www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus)